

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA

IKASTURTEA 2017/2018

**ESKLEROSI ANIZKOITZA: BIZITZARI AURRE EGITEKO BESTE
MODU BAT**

MEMORIA

EGILEA: Annette Unda Endemaño

ZUZENDARIA: Iñaki Lazkano Arrillaga

Leioa, 2018ko maiatzaren 30a.

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabean eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”.

“La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciatarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo”.

AURKIBIDEA

Laburpena	4
Sarrera	4
Helburuak	5
Metodologia	6
1. Informazio orokorraren bilaketa:	7
2. Bilaketa zehatza:	7
3. Erabilitako iturriak eta kontaktuak:	8
4. Edukien antolakuntza	12
5. Erreportajearen eta memoriaren idazketa	13
Ondorioak	14

Laburpena

Gaixotasun batek bizitza errotik aldatzen du. Aldaketa horietara moldatzen ikastea eta inguruko laguntza jasotzen jakitea izaten dira gainditu beharreko erronkak. *Esklerosi anizkoitza: bizitzari aurre egiteko beste modu bat* da horren erakusgarri.

Erreportajearen, esklerosi anizkoitzaren ondorio latzak pairatzen ari diren Bizkaiko hiru pertsonaren hitzak jasotzen dira. Horiekin batera, adituen eta gaixotasunaren inguruan dabilen eragile desberdinen hitzak ere tartekatzen dira, gaiari ahalik eta osotasun gehien emateko helburuarekin.

Gaixotasunaren lehen zantzuak antzematen direnetik gertatzen diren aldaketa guztiak barnebiltzen dira erreportaje honetan. Gainera, ADEMBIren (Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte) garrantzia eta tratamenduen inguruko xehetasunak ere azaltzen dira: medikuntzan izandako bilakaera, bizi-kalitatearen garrantzia edota familien zein zerbitzuen beharra.

Sarrera

Gaixotasunak ezustean harrapatzen gaitu. Gainera, seguraski, denok sufritu izan dugu hurbilago zein urrunago, norberaren edo norbaiten gaitza, zoritxarrez. Egunero milaka kasu agertzen dira eta gaixotasunen aniztasuna ere goraka dihoa. Esklerosi anizkoitza ez da kasu isolatu bat. Gaur egun, 2.200 pertsona inguru dira EAEn gaixotasun hau pairatzen ari direnak.

Hurbileko gai bat hartzea eta, adituen hitzak ez ezik, testigantza pertsonalak ere entzutea zen abiapuntua. Alegia, testuari ikuspegi eta profil ezberdinak gehitu eta aniztasun horren barnean osotasunean gaixotasunak inguratzen duen guztia barnebildu nahi izan dut: testigantza pertsonalak zein profesional ezberdinen hitzak tartekatuz.

Ikasturte honetako lehen lauhilekoaren bukaera aldera, Eider Olarretarekin hitz egin nuen. Esklerosi anizkoitzak barnebiltzen dituen ekintza eta jarduera ugaritan aritu izan da

Esklerosi anizkoitza: bizitzari aurre egiteko beste modu bat

Olarreta. Gradu amaierako lanean gaixotasunaren inguruko erreportaje sakon bat egiteko asmoaren berri eman nion eta ideia paregabea iruditu zitzaion.

Hortik abiatuta, elkartearekin harremanetan jarri nintzen eta Ana Calzada, Gorka Iriondo eta Maria Luisa Moya ezagutu nituen. Gero, errehabilitazio arduradunarekin, gizarte langilearekin eta komunikazio arduradunarekin ere elkarrizketak hitzartu nituen, esan bezala, aukeratutako gaia osotasunean eskaini ahal izateko. Gainontzeko iturriak interneten esklerosi anizkoitzaren inguruko artikulua desberdinen bidez, aurkitu nituen. E-posta zein telefono bidez harremanetan jarri eta elkarrizketak lotu nituen.

Gaiaren inguruan neukan ezjakintasuna kontuan izanda, lehenik eta behin zientzia arloan bilaketa bat egin eta dokumentatzea egokia izan zitekeela otu zitzaidan, eta halaxe egin nuen. Liburu bat, liburuxka bat eta hiruzpalau zientzia-artikulu irakurri nituen, gaixotasunaren jatorri eta eraginei buruz gehiago jakiteko asmoz, besteak beste.

Hau guztia bilduta, esklerosi anizkoitzaren testuinguru mediko, sozial eta asistentziazkoari eman nahi izan diet hitza, gaixotasuna pairatzen ari diren pertsona horien bizipenak oinarritzat hartu eta hauen uhinak izango balira bezala, esklerosi anizkoitzak ukitzen dituen alde desberdinak azaleratuz.

Helburuak

Gizatalde jakin baten egunerokotasuna islatu eta gizartea sentsibilizatzea helburu izanik eman nituen lehen pausoak lanean. Gaia sakonduz joan ahala, errealitate bat desestaltzen joan nintzen pixkanaka, sentimendu eta indarrez ernaldutako errealitate bat.

Norberak bizi ez dituen egoeren aurrean zaila izaten da aldamenekoaren tokian jartzea, gutariko bakoitza baita bere larruan bizi izan dituen bizipenen lekuko bakarra. Hala ere, kasu honetan, gaixotasuna egunez egun bizitzen dutenen jarrerak asko lagundu nau egoera desberdinen aurrean normaltasunez jokatzeko. Bakoitzaren gorputzak etengabe ezartzen dituen “muga berrien” onartze prozesua ikaragarria izan da kasu guztietan. Beraz,

Esklerosi anizkoitza: bizitzari aurre egiteko beste modu bat

aurrez aurre indar eta kemen hori begiztatuz, gaiaren inguruan tentuz jokatu eta normalizaziorako bidean nire alea jartzea izan da jomuga.

Bestalde, gaixotasuna ezagutzera emateko xedea ere oso garrantzitsua dela deritzot. Esklerosi anizkoitza askotan nahasi izan da ELAren (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa). Azken gaitz honen bilakaera askoz bizkorragoa eta gogorragoa denez, horrek gaixotasunarekiko pertzepzioari kutsu askoz ere negatiboagoa eranstean dio. Esklerosi anizkoitzaren irudia desitxuratzeaz gain, “kutsatu” ere egiten du.

Hasiera batean, ELAren eta esklerosi anizkoitzaren inguruko desberdintasunak zehazteko elkarrizketa bat egitea pentsatu nuen. Baina azalpenak “teknikoegiak” izango zirelakoan eta Haritz Irizar ikerlariari egindako elkarrizketa “zientifikoa” kontuan hartuz, ideia hori bazterrean uztea deliberatu nuen.

Azkenik, desgaitasun fisiko zein psikikoen aurrean errespetuz eta laguntasunez jokatzeko bultzada ematea da lan honen azken xedeetako bat. Testuan zehar aipatzen diren protagonistek bizitako momentuak aintzat hartu eta gai hau “gizarteratzea” da helburua, bakoitzak bere aldetik gizatalde honekiko kontzientzia zabal dezan.

Metodologia

Gaia aukeratzeko orduan, arazo bati aurre egin behar izan nion. Hasieran, buruan bueltaka nuen gaia entzumen arazoak dituzten haurrek hezkuntzan izan ditzaketen arazoengatik ingurukoa zen. Behin gaia erabakita nuela, elkarteetara deitzen hasi nintzen. Eskaini zidaten prestutasuna ikusita, gai hau alde batera uztea erabaki nuen.

Argi neukan gai sozial baten inguruko gradu amaierako lan bat egin nahi nuela. Beraz, hortik abiatuta, hurbileko kasu batean pentsatu eta lana esklerosi anizkoitzaren inguruan egitea otu zitzaidan.

1. Informazio orokorraren bilaketa:

Hasteko, EHU-ko liburutegian esklerosi anizkoitzaren inguruko pare bat liburu hartu nituen. Hauek irakurtzen eta laburtzen hasi nintzen, euskaratzearekin batera. Gerora, interneten, zehazki *Dialnet* atariaren bidez, gaixotasunaren inguruko artikuluko zientifikoak bilatu nituen. Elkartearen webgunea ere ezagutu nuen eta elkarrizketatu ditudan iturrien izenak aurretiaz ezagutzeko aukera eman zidan bilaketa honek.

2. Bilaketa zehatza:

Erreportajeko protagonistak hautatzerako orduan, Marian Sainz-Mazarekin hitz egin nuen. Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten duela zazpi urte inguru eta konfiantzazkoa denez, lanaren ideia kontatu nion. Berehala, elkarteko komunikazio arloko arduradunekin harremanetan jarri zen eta haien telefono zenbakiak pasa zizkidan.

Elkarteko kideei oso interesgarria irudi zitzaaien egitasmoa. Beraz, lasterrera euren bizipenak azaltzeko prest zeuden profil desberdineko hiru gaixorekin hitz egitea lortu nuen: Gorka Iriondo, Ana Calzada eta Maria Luisa Moya. Elkarteko kide diren gainontzeko iturriak elkartearen beraren bidez ezagutu ditut. Elkarrizketa hauek ADEMBIko Eugenia Epalza Errehabilitazio Zentroan burutu ditut.

Alfredo Rodriguez-Antigüedad neurologoaren kontaktua berriz, Gurutzetako Ospitalearekin e-posta bidez harremanetan jarrita bereganatu nuen, idatzi eta denbora batera. Egiazki, esperantza guztiak agortuta nituen erantzun zidatenean. Hala ere, funtsezkoa ikusten nuen neurologo baten ikuspuntua lan honetan, beraz, ezinbestekotzat jotzen nuen esparru honetan aditua den ahots bat lortzea.

Haritz Irizarren izena interneten informazio bila nenbilela irakurri nuen estreinakoz. Azkoitiarra zela konturatu eta ikasgelako ikaskide bati galdetu nion ea ezagutzen zuen. Honek baietz esan eta bere telefono zenbakia eman zidan. Interesgarria iruditzen zitzaidan

Esklerosi anizkoitza: bizitzari aurre egiteko beste modu bat

ikerlari baten ikuspuntua gai honetan, testigantza pertsonalak ikuspuntu zientifiko batekin osatzea aberasgarria baita.

3. Erabilitako iturriak eta kontaktuak:

Aipatutako hiru protagonisten elkarrizketez gain, beste sei elkarrizketa ere egin dira. Bestek beste, lanari ikuspuntu mediko, sozial, zientifiko zein berezitu bat gehitzen diotenak. Horretaz gain, *Eustat*, Eusko Jaurlaritza eta ADEMBIren txostenak eta datuak erabili ditut gaixotasunaren inguruko estatistikak erdiesteko. Datu eguneratuenak, 2016. urtekoak izan dira.

- Iturri pertsonalak

- **Ana Calzada:** Ana Calzadak 45 urte ditu eta bederatzi urte daramatza esklerosi anizkoitzarekin. Erreportajeko protagonistetako bat da. ADEMBI Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko elkartearen kide da eta gainera, zentroan bertan egiten du lan. Gaixotasuna onartzeko sasoiaren arazoak izan zituen arren, urteak pasa ahala, laguntza jaso eta gutxika aldaketak beste era batera ikusten ditu Calzadak. Interesgarria iruditu zait Calzadaren soslaia, gainontzeko biekinekin konparatuz, gaixotasunarekiko ikuspuntu desberdin bat eskaintzen duelako.
- **Gorka Iriondo:** Gorka Iriondok 40 urte ditu eta ia hamaika urte daramatza gaixotasun honekin bizitzen. Esklerosi anizkoitza zuela jakinarazi ziotenean, lana utzi zuen segidan. Bere mugak hasieratik onartu zituen eta une honetan psikologikoki “lehen egunean bezala” dagoela dio. Ikuspuntu indartsu bat ematen dio Iriondok gaixotasunaren gaiari eta oso garrantzitsua iruditu zitzaidan momentu orotan erakusten duen segurtasun eta autoestimu indartsua.
- **Maria Luisa Moya:** Maria Luisa Moyak 50 urte ditu orain, eta duela hamar urte eman zioten gaixotasunaren berri estreinakoz. Gainontzeko biekinekin konparatuta, profila desberdina du, egun gurpildun aulki bat erabiltzen baitu leku batetik bestera

mugitzeko. Harrigarria eta oparoa da Moyaren ikuspegia, denboraren poderioz mugikortasuna asko murriztu bazaio ere, ez baitu inolako gupidarik sentitzen bere buruarengan. Bere egoera txarragoa izan zitekeela pentsatuta, ezin hobeto moldatzen da aldaketetara.

- **Erika Otxoa:** ADEMBIko errehabilitazio koordinatzailea da. Fisioterapeuta da lanbidez eta hogeitau urte daramatza elkartearantz lanean. Errehabilitazioaren onurez eta arreta pertsonalaren garrantziaz luze eta zabal aritu zen Otxoa, esklerosi anizkoitza behar bezala tratatzeko, ohiko tratamendu medikoez gain, terapia ezberdinak ezinbestekoak direla nabarmenduz.

- **Alfredo Rodriguez-Antigüedad:** EAEn esklerosi anizkoitzaren gaian itzal handiko neurologoa da Rodriguez-Antigüedad. Gurutzetako Ospitalean hamaika urte egin ondoren, Basurtuko Ospitalera joan zen. Bertan beste hamalau urte igaro, eta egun, berriz ere Gurutzetako Ospitalean dihardu. Bere kontsultan egin genuen elkarrizketa, bigarren goz geratu ginenean, lehenengora ezusteko batengatik ezin izan baitzuen azaldu. Gaixotasunaren bilakaeraren inguruan aritu zen neurologoa, gaur egungo egoera duela hogeitau urtekoarekin konparatuz. Bestalde, aipatutakoari EAEn esklerosi anizkoitzaren egunerokotasunaren inguruko balorazioa gehitu zion.

- **Olatz Zelaia:** ADEMBIko gizarte langilea da eta zazpi urte daramatza elkartean lanean. Gaixotasunaren bilakaerak zenbaitetan eragiten duen desgaitasun fisikoak lanean aldaketak eragiten ditu sarritan. Beraz, Zelaiak egoera bakoitzaren aurrean eskaintzen diren zerbitzu eta laguntza sozial zein ekonomikoen inguruko xehetasunak eman zizkidan elkarrizketan oso era argi eta zehatzean.
Hasiera batean, Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialarekin jarri nintzen harremanetan. Baina gaixotasun honi dagokionez, ADEMBI elkarrekin laguntza sozial osoa barnebiltzen duela esan zidaten. Gauzak horrela, Olatz Zelaiarekin hitz egitea erabaki nuen.

- **Marian Sainz-Maza:** Aspaldiko familiako laguna. Sainz-Mazak zazpi urte inguru daramatza gaixotasunarekin. Berari esker ezagutu nuen lehenengoz esklerosi

anizkoitza. Nire asmoa kontatu, honek elkarteko komunikazio arduradunarekin hitz egin eta segidan bere telefonoa helarazi zidan. Lehen egunetan, bera erreportajeko protagonistetako bat izan zitekeela otu zitzaidan. Baina iturri gehiago lortu nituenean, gaiaren sentikortasuna kontuan izanda, niretzat ezezagunak zirenekin hitz egitea errazagoa izango zela pentsatu nuen.

- **Eider Olarreta:** Marian Sainz-Mazaren alaba. Gaiari familiarterkoen ikuspuntua eskaini zion Olarretak. Egunez eguneko asistentzia ezinbestekoa da hainbat gaixotasunetan eta inguruko hitzak entzutea interesgarria izaten da askotan eskaintzen duten laguntza eta betetzen duten papera baloratzeko.
- **Ainara Antxia:** ADEMBIko komunikazio arduraduna. Berarekin egin nuen kontaktua eta denbora horretan guztian e-posta zein telefono bidez hitz egin dugu.
- **Karmele Zubizarreta:** ADEMBIko komunikazio eta marketin arduraduna. Gaixotasunaren inguruan gizartea sentsibilizatzeko kanpainak egiten dituzte urtero, horien artean, garrantzitsuena *Busti Zaitetz* kanpaina da. Zubizarretak esklerosi anizkoitza komunikatiboki zabaltzearen garrantzia azpimarratu zuen.
- **Haritz Irizar:** Irizar biologoa da eta esklerosi anizkoitzaren inguruan egin zuen doktorego tesia Donostiako Ospitaleko Unitate Esperimentalean. New Yorken ere egon zen bi urtez eta gaur egun, Londresen dabil beka europar batekin gaixotasun psikiatrikoen genetikaren inguruan ikertzen. Internet bidez jakin nuen Haritz Irizarren berri, eta Azkoitiakoa zela ikusita, lagun azkoitiar bati galdetu nion honen berri. Bere telefonoa lortu eta elkarrizketa lotu genuen. *Skype* bidez egin genuen elkarrizketa, aipatu bezala, Londresen baitago. Irizarrek, gaixotasunaren genetika eta zergatiak arlo zientifikotik azaldu zituen, argi, gehiegizko teknizismoetan sartu gabe.

-Iturri dokumentalak

- **Erabilitako txosten, artikulua eta liburuak**

- Askoren Artean (1998). *Jornadas sobre Intervención Logopédica en Esclerosis Múltiple y Esclerosis Lateral Amiotrófica*. Salamanca: Universidad Pontificia de Salamanca.
- Carrón, J. eta Arza, J. (2013): Esclerosis múltiple: análisis de necesidades y calidad de vida de los afectados y su entorno. *Revista Española de Discapacidad*, I (2):59-75.
- Esclerosis Múltiple España (2013): Empoderamiento y proactividad ante la Esclerosis Múltiple. *Revista Española de Discapacidad I (1)*: 225-231.
- EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea (2016). *Hospitalizaciones de la C.A. de Euskadi por diagnóstico principal y tasa por 1.000 habitantes, según sexo*. Eskuragarri (edo Non): http://www.eustat.eus/elementos/ele0000000/Hospitalizaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_diagnostico_principal_y_tasa_por_1000_habitantes_según_sexop/tbl0000067_c.html
- *La esclerosis múltiple, vinculada a diversas patologías* (2015). 2018ko otsailaren 20an kontsultatua. Eskuragarri (edo Non): <http://noticiasdelaciencia.com/not/13645/la-esclerosis-multiple-vinculada-a-diversas-patologias/>
- Rodríguez-Antigüedad A, Mendibe MM, Domingo C, Fernández M, Escobar A, Gracia R, Martínez MM, Carrascal P, Lekue Z, Sebastián C, Fontenla B, Llarena C, Estébanez S (2013). *Diseño de un protocolo de interacción entre atención primaria y hospital, para mejorar la detección precoz y el seguimiento de los pacientes con esclerosis múltiple* (txostenaren zenbakia: D-13-09). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren

Argitalpen Zerbitzua. Eskuragarri (edo Non):

http://www9.euskadi.net/sanidad/osteba/datos/esclero_multiple.pdf

- **Erabilitako web orrialdeak**

- **ADEMBI** elkartearen web orrialdea. Non:

<http://www.esclerosismultipleuskadi.org/eu/adembi-2/>

- **Osakidetzaren** webgunea. Zehazki, EAEn Esklerosi anizkoitzaren egoeraren inguruan argitaratutako artikulua. Non:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-cksalu01/es/contenidos/informacion/cinfo_adembi_esclerosis/es_def/index.shtml

- **Bestelakoak**

- **Eusko Jaurlaritzak** eta **Osakidetzak** Iñigo Urkullu lehendakariak, Lan eta Zerbitzu Sozialen kontseilariak ADEMBI elkarte bisitatu zuteneko **prentsa oharra**. Non:

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_adembi_esclerosis/es_def/adjuntos/Visita_ADEMBI.pdf

4. Edukien antolakuntza

Erreportajeko protagonistak Ana Calzada, Gorka Iriondo eta Maria Luisa Moya dira. Lana atalka sailkatu dut, kronologikoki, gaixotasunaren izena medikuaren ahotik entzuten denetik, moldatzen ikasi, tratamendua hasi eta egunez egun ezustean etorritako gaitza gaixo bakoitzaren parte bilakatzen den arte.

Honi jarraiki, gaixotasunaren kontzeptuak sorrarazitako sentimenduak, hasieran jasotako informazioaren egokitasuna, norbere buruaren onarpena, aldaketetara moldatzeko gaitasuna, ADEMBI elkartearekin izandako kontaktua eta jasotako errehabilitazio, tratamendu mediko, hurbilekoen laguntza zein zerbitzu sozialak aipatzen dira. Gaixotasuna

Esklerosi anizkoitza: bizitzari aurre egiteko beste modu bat

azaltzen denetik, gaixo bakoitzaren osasun fisiko zein psikologikoak beharrezko dituen laguntzak, batik bat.

Hasieran hiru protagonisten hitzak agertzen dira soilik, arlo emozionaletik esklerosi anizkoitzak sortutako inpaktua lantzen baita erreportajearen lehen zatietan. Elkartearen presentzia esanguratsua da gaixotasun honetan barna beraz, testuan hori argi markatu nahi izan dut. Honekin batera, elkarreak aurrera daramatzan errehabilitazio terapiak ere aipatzen dira. Gero, esklerosi anizkoitzaren zaintza tratamenduekin lotu eta medikuntza esparruan izandako bilakaera jorratzen da. Azkenik, inguruko eta zerbitzu sozialen laguntza eta gizartean kontzientzia aldetik sumatzen den hutsunea nabarmentzen da.

Gaixotasunaren alde profesionala oso garrantzitsua iruditzen zitzaidan eta hortaz, tratamendu ezberdinak (medikuak zein errehabilitatzaileak) jorrateaz gain, ikerketa esparrua ere landu dut, esaterako, gaixotasunaren agerpenean eragiten duten faktoreak zehaztuz. Bestalde, gaixotasunak komunikatiboki duen hedapena azaltzea interesgarria iruditu zitzaidan, EAEn esklerosi anizkoitzaren egungo egoera azaltzeko baliagarria baita. Gainera, egungo datuek aberastu egiten dute gaia eta gaixotasunaren errealitatearen inguruan ideia bat egiteko lagungarriak dira.

Bereziki, Calzada, Iriondo eta Moyarengan jarri nahi izan dut fokua. Testigantza pertsonaletatik abiatu eta elkarrizketa horietan ateratako mamia zerrendatutako gai desberdinekin lotu dut, tarteki bakoitza lehenago eta geroago aipatzen denarekin ahalik eta egokien koordinatuz.

5. Erreportajearen eta memoriaren idazketa

Otsailetik martxora bitartean egin nituen elkarrizketak. Hauek transkribatu eta egitura osatu ondoren, idazteari ekin nion. Hasiera batetik argi neukan egitura eta ez nuen arazorik ezta zalantzarik izan hori burutzerakoan. Oso gustura eta segurtasunez sentitu naiz idazterakoan, nahi adina informazio lortu bainuen “puzzle” handi hau osatzeko.

Elkarrizketa guztiak gaztelaniaz egin nituen, bi izan ezik. Transkribatzerakoan hanka sartzerik ez egiteko, erabilitako terminoak kontsultatu egin behar izan ditut askotan, mingarriak edota iraingarriak izan ez daitezen, gaiaren sentsibiltatea kontuan izatea garrantzitsua baita. Hala ere, hasieran ezarritako helburua bete-betean lortu dudala uste dut: nire intereseko gai bati buruz idaztea eta gaiarekin eta honen inguruan mintzatu diren pertsonen hitzekin errespetuz jokatzeari.

Ondorioak

Lana bukatuta, azken hilabete hauetan Gradu Amaierako Lan honetan parte hartu duten guztiei eskainitako laguntza eskertzea baino ez zait geratzen. Bereziki, eskerrak Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren ADEMBI elkarteari, momentu orotan lanarekiko erakutsi duten interesagatik eta eskuzabaltasunagatik.

Zortedun sentitzen naiz gai hau aukeratu izanagatik, auzi honen inguruan elkarrizketatutako guztiek asko erraztu baitidate bidea. Prestutasun horrek nire lanarekiko motibazioa eta interesa izugarri piztu du. Azken finean, norberaren esfortzuek besteengan ilusio bat sortzen dutenean, beste era batera eusten baitiogu lanari.

Esklerosi anizkoitza: bizitzari aurre egiteko beste modu bat beraiei eskainia dago, erreportajeari arreta eskaini dioten guzti horiei eta noski, egunez egun bizitzari indarrez eta gogobetez ekiten diotenei.